

...eta **kitto!**

766 zkia. 2011-VI-3

ASTEKARIA

TOKIKOM



Itxaropenak bizirik dirau



Teilatuak Fatxadak Sukaldeak
Gremioen koordinazioa etab.



JORGE VEGA S.L.
IGELTSERITZA

Tel. 943 20 83 26 / 607 20 12 23 Tel./Faxa. 943 20 77 34

F. Calbetón, 4 - 3. solairua jorgevega.eibar@gmail.com jvega@jorgevega.es



ORTODONTZIA IKUSIEZINAREKIN...



irribarrerik
onena
lortuko duzu!

...eta atera
egiezu etekina
hortz-zuriketan di-
tugun
**PROMOZIO
BEREZIEI.**

**Zatoz eta
KONTSULTA egin!**

**Badirelako
gauza batzuk
galtzea komeni
ez direnak...**

**IRAZABAL
KLINIKAn
txikienen
aho-hortzetako
prebentzioaren
alde egiten
dugu apustu.**



Egizuz PADI-ren azterketak.



IRAZABAL
clínica dental

Julian Etxebarria 12 - 1. Esk.
20.600 EIBAR (Gipuzkoa)
Tel. 943 20 85 52



ARGITARATZAILEA:

...eta kitto! Euskara Elkartea

HELBIDEA:

Urkizu, 11 - solairuartea
20600 Eibar

TELEFONOAK:

943 20 67 76 / 943 20 09 18

FAXA:

943 20 28 72

Astekariaren E-MAILak:

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

Elkartearen E-MAILak:

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:

Itziar Albizu

Maidar Aranberri

Ekhi Belar

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:

Koldo Mitxelena

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Jose Luis Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:

Maialen Belaustegi, Ander Salegi,

E.Belar eta S. Hernandez

HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu

Belen Ulazia

Tfnoa: 943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA:

Ekhi Belar

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ainhoa Luz

TIRADA:

8.000 ale

INPRIMATEGLIA:

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A:

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA:

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!*)k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskeraz

HAU BAI.- Poza eta nahigabea adierazteko. "Hau bai jaixa edarra!". "Hau bai izatekoa neri datorkirana!".

HAU DA HAU.- Poza edo harridura adierazteko interjekzioa. "Hau dok hau izatekoa, osabia hill eta aberastu".

ESKUTITZAK

KARPA LEKUZ ALDATZEAREN INGURUAN

Eibar futbol taldeak mailaz igoko zuelakoan Euskal Jaiko antolatzaileak karpa lekuz aldatzera "behartu" zituzten Eibar futbol taldeko zuzendaritzak eta Alkateak berak. Arrazoiak bat, Eibar Futbol Taldeak mailaz igota udaletxeko balkoian harrera jasotzeko kategoria duela. Nik ez dut hori dudan jarriko, baina Euskal Jaiko Batzordeak antolatutako egitarauan parte hartzera gindoa zenok ez al dugu kategoria nahikorik egitarauak behar dituen baldintzetarako egokitutako lekuak erabiltzeko?

Beste arrazoiak, igo ezkerro eta udaletxeko balkoira

atera ezkerro, harrera ospakizunera zihoan jendetzak alde horretan muntatutako karpian agian kalteak sor zitzaizkeen zana. Horrelako herri hezigabea al dugu?

Bukatzeko, gogoeta bat: Euskal Herria berezi egiten duena bere hizkuntza, kultura eta honek dakarren izaera dira. Baina edozer jartzen dugu beti kulturaren aurretik, beti azkena, beti gainontzeko ekitaldiei kolorea emateko erabiltzen dena, beti apaindura. Hori da nahi dugun herria?

ARESATZ USOBIAGA EPELDE

asteko

HEMEROTEKA

esaldiak

"Itxura, ohitura edo arraza desberdinen aurreko beldurra edo nazka ez da arrazakeria; arrazakeria da beldur edo nazka natural hori ideologia baten bidez zuritzea eta arrazak hierarkizatzea. Eta, Sabino Aranaren testu mordoak arrazista izan arren, bere garaiko Europako politikari eta pentsalarien testuak okerragoak dira oraindik, azken hauek ez baitira defentsazkoak"

(Markos Zapain, Filosofian doktore eta irakaslea)

"Soldatak produktibitateari lotzeak ez du zertan ekarri behar soldaten jaitziera, batez ere produktibitateari igotzen badugu: Alemania da horren eredu. Adegik erantzunkizun ariketa besterik ez du eskatzen. Gurean azken hamarkadan behargin bakoitzaren kostua %4'7 igo da urtero -Europako altuenetakoa da-, puntu bat inflazioaren gainetik, produktibitatea zerbaki errealetan %1'5 igo denean"

(Eduardo Zubiaurre, Adegiko presidentea)



EIBARKO UDALA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA (HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kulturak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria

autuan

ABONTZAKO JAIKAK

Abontzako Jaixetan egindako zozketan, hauek izan dira sarritutako zenbakixak: 6.507 (Hoznayoko Villa Pasiega hotelian lagun birendako gau bi pasatzia, afarixak eta armozuak barne eta spa-zirkuituarekin) eta 5.347 (lagun birendako Krabelin hotelean afarixa eta gaba pasatzia).

ALCER GIPUZKOA

Organu-emotailien eguna goguan, urteroko moduan kanpainia informatibua garatzen dihardue Alcer Gipuzkoa alkartekuak eta Eibarren egongo dira bixar. Mahaixa Toribio Etxebarria kalia ipiñiko dabe, 10.00etatik 13.00etara goizian eta 16.00etatik 20.00etara arratsaldian.

ATZEGI

Domekan Atzegiren XIII. Famelixen Topagunia ospatuko da: 12.00xetan mezia ospatuko da San Andres elizan. 13.30xetan Untzagan argazkixa etara eta 14.00etan Arrate hotelian bazkarixa egingo dabe.

ERTIZKA OTXOTIA

Gaur 20.00etan Ertizka otxotia kontzertua eskinduko dau San Andres elizan. Ertizka otxotia musikan 47 urtian diharduten 12 kidek osatzen dabe; tartian Eibarren bizi dan Guri Guri jatetxeko Jose Antonio Olasagasti oiartzuarra dago.

Eskualdeko ekintzailleri errekonozimendua

**AURREKO ASTEKO EGUE-
NIAN JENDETZA ALKARTU
ZAN DEBEGESAN, EKIN-
TZAILLIAREN EGUNA OSPAT-
TZEKO EKITALDIXETAN.** Eki-
taldixen hasieran Enpresen
Azokia egon zan martxan eta
bertan gure eskualdean sortu
barri diran enpresak euren zer-
bitzu eta produktuak aurkezte-
ko aukeria izan eben. Azokan
parte hartu eben enpresak Liz-
zura (Eibar) maskotendako
moda eta bitxixen diseiñua,
Musikum (Eibar) musikoterapi-
a, Ilobe (Eibar) ikus-entzu-
nezko zerbitzuak, Cioka Creati-
va (Eibar) komunikaziñorako
zerbitzu grafikak, Lagun (Ei-
bar) maskoten errausketa-bei-
latokixa, AZT Higiene (Mutriku)
enpresendako garbittasun pro-
duktuak eta higieenea, Lotalo



Debabarrena Ekinean! eta Bai Industriari! errekonozimenduak jaso zittuan taldia.

(Ermua) koltxoi eta ehun-mer-
kataritza eta Berbak (Elgoibar)
Jasone Osorok eskindutako
idazle-zerbitzuak izan ziran.
Jarraixan Juan Luis Urkolak
eskindutako hitzaldixa amait-
zian, Debabarrena Ekinean!
eta Bai Industriari! errekonoz-
imenduak banatu zetsazen ja-

rraixan aittatutakueri: Lagun
(talde-lanari errekonozimen-
dua), Ekar soldadura (Plus Eki-
mena) eta Pagoaga Lorezain-
tza (Iraunkortasun/nekazain-
tasunari errekonozimendua).
Bai industriari! errekonozimen-
dua, barriz, Elgoibarko Brony-
mec enpresak jaso eban.

Ikastolako olinpiadak bixar Iturburun


**AURREKO ASTEBURUAN IKASTOLAKO TXIKIXAK EDER-
TO IBILLI ZIRAN GOIZIAN ITURBURUN** jokaturako olinpia-
detan eta bixar, barriz, nagusixaguen txandia izango da. Urte-
roko moduan, ekañeko lehelengo zapatuan ospatuko dabe
Euskaraz Bizi proiektuaren barruan antolatutako Kirola Euska-
raz Bizi jaixa, hauxe be Iturburun. Bixar 08.00etatik aurrera hasi-
ko da autobus zerbitzua, Untzagatik eta Urkizutik urten eta



Aurreko zapatuan Hour Hezkuntzako ikasliak izan ziran protagonista. / SILBIA HERNANDEZ



Iturbururairño igotzeko. 08.30xetan
erretratuak etaraten hasiko dira eta,
hortik aurrera, kirol modalitate difee-
rentietako probak, desfiliak eta beste-
lako guztiak etorriko dira, 18.30xetan
bueltarako autobusak bajatzen hasi
bittartian.



MAITE GASTESI UZKUDUN

*Izan zaren modukoa izateagatik,
erakutsi eta eman diguzun guztiarengatik,
zure aldamenean egoteko zortea izan dugulako:
Eskerrik asko, amaxi!*



Duten garrantziaz jabetzeko, faltan izan arte itxoiten dugu maiz



EUSKARAZKO
HEDABIDE
EZ PUBLIKOAK



Eibarko andren historixia eskuragarri

asteko
1'45
datua

ohe dagoz Debarreneko ospitalean 1.000 biztanleko, EAEko batzbestekua dan 2'6tik behera. Gurian eraikitzekua dan ospitalak 100 bat ohe eta 30-35 milioi euroko aurrekontua izatia dago aurreikusitta.



Erdi Aruan hasi eta transiziōnariñoko tartian zentratzen da liburua. / SILBIA HERNANDEZ

EIBARKO ANDRAKUMIEN HISTORIXIA LABURBILTZEN DABEN LIBURUA PRESENTAU EBAN ARANTZA LASA EGI-LLIAK aurreko astian, jende mordua erakarri eban Coliseo antzokiak hartu eban ekitaldixan. "Historia de las mujeres de Eibar" Ego Ibarra batzordiak argittara emondako 39. liburua hau Emakumiaren Ordezkaritzak 2005ian kaleratu eban "Emakumeek Eibarko Historiari egindako ekarpena" beka-deialdixan sarixa eruan eban proiektutik jaixo da eta egilliak errepasso ederra emoten detse Eibarko andrazkuek egindako biharrari, Erdi Aruan hasi eta transiziñoko urtien bittartekuak bilduta. Nahi dabenak ikerketa lan sakonaren emaitza dan liburua erosteko aukeria dauka herriko liburutendetara juanda (16 euro balixo dau).

"Menu Estress", astelehenetik aurrera astero ETB2xan

ASTELEHENIAN, HILLAREN 6-XAN ESTRENAUKO DABE MENÚ ESTRESS SAIUA ETB2-XAN, 22.00etan. Hortik aurrera astero emongo dabe sukaldaritzaren inguruan sortu barri daben lehiaketia eta lehiakidiak antolatzailliak agindutakuak preparatzeko biharra gogotik egin bihar izango dabe, jokuan daguazen 3.000 euruak eskuratu nahi badittue behintzat. Ibon

Uzkudun eibartarrak presentauko daben saiua Bidebarrieta kaleko Bomba alkarte gastronomikuan grabatzen jardun dabe aurreko astiotan, parte hartuko ebanak aukeratzeko kasting-a egiñ ostian. Ointxe lehiaketan zeintzuk daguazen ikusteko eta sarixa zeifiek eskuratu daben jakittek, asteroko emisiñuari itxoittia beste aukerarik ez dakagu.



AZKEN DENBORALDIKO BETAURREKOAK

Erakutsita hasi kolore berri: lagungo 100 000 000 eta 100 000 000 eta 100 000 000. Erakutsita hasi kolore berri, lagungo 100 000 000 eta 100 000 000 eta 100 000 000.

Eguzkitako betaurreko graduatua

57€

Bidebarrieta 2 • Tel.: 943 20 05 22 • EIBAR

MULTIOPTICAS
lehen zerbitzu optikoetan




Kanadako indigenak bisitan

AURREKO ASTEKO BARI-XAKUAN, KANADAKO MIK'MAG KOMUNIDADE INDIGENAKO LAU ORDEZKARI ARMERIXA ESKOLAN bisittan izan ziran, tartian Terry J. Paul Kanadako indigenen burua eta gobernu federaleko kidia. Geu-

raera egindako biakia aprobetxautu Eibar eta inguruko hainbat enpresa ezagutzen ibilli dira, etorkizunera begira negoziarako egon leikiazan aukerak aztertzeke asmuarekin. Armerixa Eskolatik Portalera juan ziran, Armagintzaren Museua ikustera.

auzoric auzo



Gaur hasiko dira Urkiko jaixak

Aurreko astian presentatu zittuen Aterpe alkartian aurtengo Urkiko jaixak. Izan be, programan jasotakuak aurreko zapatuan hasi ziran, Unben nesken artian jokatu zittuen foball partiduekin. Halanda be, eta urteroko martxari jarraituta, gaur, bixar eta etzi bittartian egingo dira jaixekin lotutako jarduera gehixenak, hórretako asko eta asko Arrateko Andra Mari ikastetxian eta auzoko taberna eta inguruetan. Herriko beste auzuengandik Urki diferentia egitten dabean cava eta langostinuaren jaixan 180 kilo otarrainxa eta 400 cava botilla banatuko dittue aurten eta Urrezko Otarrainxa, barriz, Bar Nuevo-ko Faustino Martinek jasoko dau oinguan.

Jaixen hasierako txupinazua gaur 19.00etan botako dabe eta, jarraixan, buruhaundixak eta fanfarre batek girotuko dittue barrixoko kaliak. Urteroko moduan, auzoko nagusixeri omenaldixa eskinduko detse 19.30xak aldera eta, txikiteua eta afarixa amaituta, nahi dabeanak dantzari jarduteko aukeria izango dau Africa taldiak emongo dabean berbenan. Programan jasotako ekitaldi guztien barri zihetza jasotzeko, 24. orrialdeko agendara jo zeinkie.



Asteleheneko erreskatia ikusgarria izan zan. / JAVI COLMENERO (NOTICIAS DE GIPUZKOA)

Trailerra zubitik zintzilizka

ASTELEHEN ARRATSALDIAN, 19.15-AK ALDIAN, A-8KO AZITTAINGO BIADUKTUAN TRAILER BATEK istripua euki eban eta, horrek eraginda, auto-illara luziak sortu ziran autopistan, norantza bixetan. Gauzak bere onera bueltau bittartian, N-634 errepidetik desbideratu bihar izan eben trafikua. Istripua benetan ikusgarria izan zan; izan be, kamioiak artazixaren egiñ eta kabinia zubitik beheara 25 metroko alturian zintzilizka geratu zan, gidarixa oindiok barruan segitzen eban bittartian. Halanda be, suhiltzailliak gidarixa onik erreskatatzeko sasoiz ailegau ziran eta horri eskerrak ez zan ezer larrixagorik pasau.


eibar kaleka

Txirixo kale

San Andres elizaren inguruan jaixotako gure herrixak Erdi Aruan izan zittuan hiru kale nagusixetako bat izan zan gaur egunian Txirixo kale modura ezagutzen doguna (lehenago Txurio kale), Barrenkale eta Elgeta kalerekin batera.

Pegora kopurua: 5

Erroladatutakoak: 43



AITON-AMONEN ESKUBIDEEN INGURUAN

Aititxa-amamek familiaren barruan rol garrantzitsua jokatzen dute, ez dago zalantzarik, eta egungo legeek balore hori aitortzen diete. Familiari zor zaion lege babesaren barruan, umeen eta aititxa-amamen eskubideak gero eta indar handiagoz aldarrikatzen dira. Gero eta kontsulta gehiago sortzen ditu gai honek.

1. Zeintzuk dira aititxa-amamen eskubideak ilobekiko, umearen gurasoak banantzen edo dibortziatzen direnean?

Aititxa-amamek ilobekin egoteko eta komunikatzeko eskubidea daukate. Gertatzen da batzuetan zailtasunak izaten direla eskubide hori gauzatu ahal izateko.

2. Zer egin dezakete aititxa-amamek euren eskubideak gauzatu ahal izateko iloben gurasoak elkar adostuta banantzen eta dibortziatzen badira?

Umearen gurasoak elkar adostutako prozedura judizial bitartez dibortziatzen edo banantzen baldin badihardute, bien artean banaketa edo dibortzioa arautuko duen hitzarmena sinatuko dute. Bada, aititxa-amamek eska dezakete hitzarmen horretan jaso dadila ilobarekin egoteko eskubidea, eta zehaztu dadila noiz eta nola egon eta komunikatu ahal izango diren umearekin. Adibidez, jar daiteke umea asteko egun jakin batean aititxa-amamaren etxera joango dela bazkaltzera. Behin hitzarmen horretan jasota, epaitegietan balio arazi daiteke eskubidea.

3. Eta gurasoak elkar adostu gabe banantzen edo dibortziatzen badira, eta orduan epaiketa bat baldin badago, aititxa-amamek nola baliaraziko dituzte euren eskubideak?

Orduan epaiketan zehar eska dezakete epaileak egun eta ordu jakin batzuk ezar diezaitela umearekin egon edo komunikatu ahal izateko.

Zuzenbideari buruzko edozein buruzko izanez gero, idatzi erredakzioa@etakitto.com helbidera; hurrengo alean zalantza horiek azaltzen saiatuko gara.



abokatua



4. Zer gertatzen da ilobaren gurasoak banatuta edo dibortziatuta ez badaude, baina hala ere ez badiete uzten aitona-amonei umeak ikusten edo umeekin egoten?

Aititxa-amamek eta gertuko beste senideek eskubidea dute ilobekin edo familiaro umeekin egoteko, hori galerazteko pisuzko arrazoirik ez badago behintzat. Umeen guraso biek edo batek eskubide hau galerazten badie, aititxa-amamek epaitegira jo dezakete, demanda bitartez, eta umearekin egon ahal izateko egun eta ordu batzuk epai bidez finkatzeko eskatuko diote epaileari. Finkatuko diren egun eta orduak desberdinak izango dira umearen adinaren arabera, bakoitzaren bizilekuaren arabera etabar, baina hala ere tarte bat eman egun beharko zaie aititxa-amamei.

5. Iloba bere gurasoak ez diren beste familia batean harrean badago, aititxa-amamek ba al dute eskubiderik berarekin egoteko?


Horrelako kasuetan epaileak finkatu beharko du umearentzako aititxa-amamekin harremana eta komunikazioa izatea ona den ala ez. Kontutan izango dena umearen ongizatea da.

6. Gerta liteke kasuren batean aititxa-amamek umearen tutoretza-legela hartzea?

Epaileak ikusiko balu gurasoak ez direla gai guraso-agintea izaten segitzeko (kanpoan daude, kartzelan daude, ezgaitasuna dute, gaixotasuna, drogamenpekotasuna etab) erabaki dezake umearen tutoretza aititxa-amamei ematea. Baina guraso-agintea bere gain duen guraso bat daukan bitartean, ez zaie tutoretza emango aititxa-amamei.

Hondartzak betetzen doiaz eta irudixari horrenbesteko garrantzixa emoten jakonez sasoi honetan, jendiak bere onena erakutsi nahi dau bikini eta baiñujantzixarekin. Aurretik gogotik ahalegindu egin biharko dabe askok, neguan hartutako kiluak galdu eta gorputzari beste forma bat emoteko. Mirari dieten sasoia da.

Mirari dietetan siñesten dozu?



MILA MAKAZAGA
77 urte
etxeoandria

Ez dot bape siñesten. Danetarik jan bihar da, baiña neurrixan, kantidade haundi barik eta grasa gitxirekin. Baiña mirari dietarik ez da existitzen. Mediterraneoko dietari jarraitu bihar jako, osasuntsu jan eta ahora eruaten dozuna zaindu, beste barik.



J. IGNACIO DE LA SERNA
42 urte
komertziala

Begittantzen jata mirari dieta moduan ezagutzen dittugunak zeozer egingo dabela. Hori bai, dietak markatzen dittuen pausuak zorrotz jarraitu bihar dira. Izan be, dietia ondo jarraitzen ez badozu, ez dau ezertarako balixo izango.

ANTOLIN TERUELO
67 urte
jubilaua

Ez, bapez. Pentsatzen dot argalzteko kirola egiñ eta personaia zaindu egin bihar dala, ondo jan eta osasuntsu ibilli, beste barik. Begittu neri, eta danetarik jaten dot. Gauzia da borrokau egitten dotela eta zaintzen ahalegintzen naizela.



IZARO OIARBIDE
33 urte
botikarixa

Ez dot mirari dietetan siñesten. Begittantzen jata engaiñatzeko besterako ez dabela balixo. Egin biharrekua ondo jan eta bakotxak bere burua zaintzia da, baiña ez dot pentsatzen mirari dietarik darguanik.



ARTOLA

jatetxea

ASTE BURUKO DEGUSTAZIO MENUA

*Etxeko foie-a
Iberikoen eta tipulinaren entsalada epela
Otarraixkak plantxan*

*Legatza frijitua txapiroiekin edo
Bakailaoa Club Ranero eran*

*Solomilloa plantxan edo
Ahate confit-a*

*Degustazio postrea edo
Limoi sorbetea cavarekin edo
Gazta mousse-a*

Urteko ardoa, sagardoa edo beste

Astelehenetik
barixakura
EGUNEKO
MENUA
15 €

25 € + BEZ

Tokia gordetzeko:
943206348

EGOITZA NAGUSIA
Dibabarrieta 20 - beheko eskuma

M FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del
Bajo y Alto Deba

Tanatorioa eta Errozketa labea
Egoibonen (Signo poligonozko)
Partikular, multzo eta aseguru etxei zerbitzuak
Koroak - Eskelak - Urteurrenako eskelak
Eskel Hieni azoko ospitaleetan hartzen ditugu
Nazio eta Nazioarteko treslagileak

Mugica Ehorzketa
Funeraria labea

TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951

Aukera polita galdu eban Eibarrek bere historixako 71 urtietan laugarren igoeria lortzeko. Partidu aurretik taldia ikusten jakozen aukerak partiduan bertan konfirmatu ziran eta Manixen taldia kataluñarrak baiño merezimendu gehiago egin zittuan kanporaketa alde izateko. Halanda be, kanpotarrak euren aukera bakarrian gola sartziak asko zaildu zittuan gauzak eta multzoko lehelengo postua lortzen izandako suertiak ez eban oinguan gure alde jokatu. Dana dala, aukera barrira zabalduko da domekan gure taldia aurtengo helburua bete deitan.

Domekan, 20.00etatik aurrera, hasiko da El Collao zelaian bertako Alcoyano eta Eibarren arteko kanporaketa, handik astebetera Ipuruan izango daben bigarren saiuaen nondik-norakua zihazten juango da-



Eibarko Unión Local-ak 1977xan Manixen aukeratu aurka egindako kanporaketa irabazteko. / JUAN CRUZ LÓPEZ

2. A maila helburu

Itxittako atia barriro zabaltzeko gogua batzen

na. Ixa danak, hanguak eta hamenguak, kanporaketa Ipuruan erabagiko dala pentsatzen dabe. Javier Mandiola "Manix" Eibarko entrenatzaillia argi dauka hori, "hango emaitzak be zeresana izango daben arren, bueltakua zelan

prestatu erabagitzeko". Berak diñuan, Sabadellen aurrian aukeria ihes egittiak "bere ondorixuak laga dittu danongan, baiña ahazten goiazten neurrixan, ikututa egonda be, ilusiñua pizten doa gure barruan. Gure obligaziñua izatiaz aparte, ilusionantia dala-ko aurrian doguna".

Pasautakua pasauta, itxaropentsu ekin detsa kanporaketa barrixari: "Oin be favorito gara, askogaittik ez, eh! Baiña bigarren partidua etxian jokatzia plus hori emoten desku". Onartzen dau, halanda be, iaz be kanporau eben Alcoyano ez dabela gehixegi eza-

gutzen: "Oin gabiz pixkat euren ezaugarrixen barri jasotzen. lazko jokalaria gitxi dake-lakuan nago". Gaiñera, eibartarra ez da bestiekin larregi arduratzen dan entrenatzaillia: "Guk geuriarekin be nahikua dogu ondo egitten saiatzeko!".

Urrats hau bide onera eramateko, "lana egittiaz aparte, garantixarik ez daguala" diño. "Baiña bai sensaziñuak eta hórrek aurrera egingo dogula diñoste". Argi daka Manixek "irabaztekotan, danok irabazten dogula: zaletuok eta etxe-kuok; eta galdu be, gauza bera. Batarako zein besterako, preparatuta gagoz". Taldian be konfiantza haundixa daka: "Denboraldiko une onenian



Eguraldixa lagun, giro paregabian bazkaldu eben zaletuak parroquia onduan. / MAIALEN BELAUSTEGI

Zerbitzu osatuak Eibar eta eskualdeko osasun zentru eta etxeetan

Gipuzkoa, Espainia eta nazioartetik egiten dira trasladoak

NTRA. SRA. DE BEGOÑA

EHORZKETA-BEILATOKIA

• KOROAK • ESKELAK • HILARRIAK • AGIRIAK

BULEGOAK ETA ERAKUSKETA:
Txalixxa-Zelai, 4-6 - behea, ezk.

ZERBITZU IRAUNKORRA:
☎ 943 201095 FAX: 943 202564

EMAKUME ETA GIZON MODA

Valenciaga

K O N F E K Z I O A K

☎ 943 20 22 33

ZULOAGATARREN, 7





Gitxitan ikusten dan moduko sarrera izan eban Ipuruak aurreko zapatuan. / EKHI BELAR

gagoz, talde-lana egitteko aproposenian. Gure artian iñoiz baino konprometituago, hobeto ezagutzen gara... eta, Sabadellen kontra be, partidurik galdu barik geratu gara kanpuan”.

Zaletuak itxaropentsu

Desilusioak eta zapatuko partiduen amaierako buruak makurtziak itxaropenari egin detse tokixa barriro be Eibarko zaletuen artian. Aitor Muniozguren Eskozia la Brava peñaren ordzkarixetako batek diñuan moduan, “Sabadellen kontrakuak erakutsi zeskun ekipo nahikua dogula mailla igotzeko. Baitta merezi izan genduala be: taldia fuerte ikusi zan fisiko-



Eibarren erasoaldixa Sabadellen area barruan: Altuna buruz errematatzen. Behian, jokalaria bera atezoiñaren aurrian lehelengo zatiko okasiño argixenian. / EKHI BELAR



ki eta horrek asko laguntzen dau konfiantza berreskuratzeke”. Kanporaketa guztietan bigarren partidua Ipuruan jokatzia “bentajia” dala begittantzen jako Aitor Muniozguren: “Horrek aurrera egitteko %50 baiño zeozer gehixago emoten desku. Gujueloren aurka jokatu biharreko Ligako azken partiduen aurretik holako egoeriarekin amesten genduan eta hori behintzat eskuan daukagu”. Taldiari laguntzeko “iñoiz baiño indartsuago” daguazela diño eta badaki “sarixa

jasotzeko, danok emon bihar dogula aurretik”. Gaiñera, pixkat egoeriak bihurtuta bada be, zera esan desku: “Sanjuanetan igotzia da Eibarri tokatzen jakona! Ohitturiari eutsi bihar jako!”.

Ixa 5.000 lagun izan ziran Ipuruan

Zapatuan Sabadellen kontrako partiduan 4.926 ikusle



12. zenbakixak garrantzi haundixa hartuko dau Eibarrek jokau leikiazen kanporaketa bixeton. / MAIALEN BELAUSTEGI

izan ziran Ipuruan. Modu horretan beteta oso gitxitan egon da zelaixa: Rayo Vallecanoren kontra igo zanian -orduan be sanjuanetan-, Ferrolen kontra 1. maillara igotzeko hortxe-hortxeegon zanian eta beste pare bat partidutan gertautakua bakarrik. Iaz Alcoyano eta Ontin-



Galeriaseko parkian egindako bazkarixan, zaletuak gogotik animatu eben taldia. / M. B.

nak denboraldi bikaina dihardute egitten eta aurreko asteburuan Cádiz haundixa kalera tu eben, aurreko 0-2kuari Mirandako 4-1-ekurekin bueltia emonda).

“Bat Eginda Lortuko Dugu” plataformak, bestalde, hainbat ekitaldi dabil antolatzen hamendik aste batera, itzuliko partiduen inguruan egitteko. Autobusa antolau dau oiñ Alcoyra juateko (60 eurotan, biatja, hotel gaba eta sarrera) eta taldiaren autobusa agurtzeko asmua be badake Ipuruatik.




Zorionak, Jose eta Mari!!

gaur urrezko exteiak betetzen dituzuen honetan.

Zuen hiru seme-alaba eta gehitutako beste hiruren partez.

TEEN-
AJEA

sano juan

erre
barik

Biharamonean sortutako ideia, Sanjuanetan biharamona ekiditeko. Arkaitz Mujika eibartarrak San Juan osasuntsuak edukitzeko mezua igortzen duen pegatina diseinatu du. 'Sano juan, erre barik'.

ARKAITZ MUJIKA, sanjuanetako pegatina irabazlea:

“Eredua eman beharko dut sanjuanetan”

- Nola inspiratu zinen pegatina diseinatzeko orduan?

Biharamona neukan egun batean etorri zitzaidan ideia. Eibarko sanjuanak eta alkoholaren aurkako erronka uztartze-ko sua, edalontzi bat eta otu zitzaidan lema nituen oinarri. Zailena, baina, ideia burutik paperera pasatzea izan zen; baina Nerea eta Olaiaren laguntzarekin, berehala lortu genuen. Elkarlanak fruitu hobekak ematen ditu.

- Pentsatzen duzu mezuak eragina izango duela jendearengan?

Eragina edukitzea ez da baxtererreza. Jendea etxetik kalera 'sano joango' dela argi dago; gauza da sano ibili eta etxera sano bueltatzea eta hori pegatina batekin lortzea oso zaila izango da. Norberaren zentzuaren arabera izango da gehiago.

- Espero zenuen irabaztea?

Espero, espero... beti daukazu itxaropen txiki bat, batez ere egindako lanarekin pozik gertatzen zarenean. Baina ezusteko polita izan da niretako saria irabaztea.

- Lehenengo aldia da horrela-

ko lehiaketa bat irabazten duzuna?

Beste arlo batzuetan irabazi izan dut lehiaketaren bat edo beste, baina sekula ez diseinu kontuetan. Azpimarratu nahi dut, hala ere, Nerearen laguntza gabe ez nuela lortuko.

- Zer dakar zuretzat Sanjuanetan jende guztiak zure pegatina erabiltzeak?

Ilusioa egiten dit, baina presio pixka bat ere nabari dut. Aurten sanjuanetan eredua eman beharko dut eta kalimotxo gutxiago edan (barreak); baina lau-bost trago hartuko ditugu ospatzeko, hala ere. Hori bai, 'Sano Juan eta sano bueltatzeko' etxera, erre barik!

- Gustoko dituzu sanjuanek?

Asko gustatzen zaizkit. Batez ere asteburu arruntetan faltan botatzen den euskal giro hori kalera irtetzen delako. Horretarako, hala ere, txosnak leku egoki egoteak garrantzia handia dauka. Ia zorte hobea daukagun aurten. Euskal Jai, Arrateko jai, Sagardo Eguna, San Andres eta Sanjuanek (txosnekin) giro berezia sortzen dute Eibarren, beraz, eutsi goiari!



**San Andres
Gozotegia**

- **tartak**
- **enkarguak**
- **etxera**

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

ITZULPEN

ERA GUZTIETAKO TESTUAK
ITZULTZEN DITUGU,
euskaratik gaztelarrera,
gaztelaratik euskarara,
eta ingelesezik euskarara.

ZERBITZUA

elkartea@etakitto.com

Jai herrikoien aldeko lip-duba grabatuko da

Sanjuanak gainean dauz-kagu eta azken asteotan beharrean jardun dute Jaixak Herriak Herrixandako jai batzordekoek, euren helburu nagusiari jarraituta: *"Guk jai herrikoi, euskaldun, parekide eta partehartzaileen aldeko apustua egiten dugu, jaiak herriak egindakoak eta herriaren-dako egindakoak izan behar direla uste dugulako, eta hori lortzeko asmoarekin dihardugu beharrean"*. Besteak beste, astero, barixakuero Montekasino parkeo parkean bilera irekiak egiten dituzte eta herritarrei bi-

leretan parte hartzeko dei egiten diete.

Baina, horrez gain, Lip Duba grabatzeko asmotan dabilta eta, horretarako, ahalik eta jende gehien animatzea gustatuko litzaieke, *"ahalik eta jende gehien bildu eta herriko hamai-ka kolore ezberdin jai herrikoien alde agertzeko"*. Grabazioa datorren astean, ekainaren 10ean (barixakua) izango da, Txaltxa Zelaian (musika kioskoaren inguruan) 16.00etatik aurrera, eta parte hartu nahi duten guztiak ongi-etorriak izango direla azaldu dute antola-




Euskal Herriko herri askotako adibideari jarraituta, herritar mordoak elkartu nahi dira lip-dubean.

zaileek. Edozein modutan ere, zalantzaren bat izanez gero edo beste barik proposamenak egiteko barixakuetako bilereta-

ra zuzenean jo daiteke edo, nahiago izanez gero, jaixakherrixandako@gmail.com helbidera idatzi.

Indianokua gaztelekuan jaietarako prestatzen



Koadrila bakoitzak kamiseta "esklusiboa" jantzi ohi du jaietan. / S. HERNANDEZ

Hala nahi duten gazte koadrilek jaietarako kamisetak egiteko aukera izango dute Indianokua gaztelekuan, bihar bertan hasi eta ekainaren 11n eta 18an jarraipena izango duen ikastaroari esker. Tailer-rean aurreko egunetan izena eman duten LHko 5. eta 6. mailetako eta DBHko ikasleek hartuko dute parte eta, begiraleen laguntzaz, baietz diseinu ikusgarriak sortu!

Bestalde, gogoan izan jaietako egitarau ofizialean parte hartzeko asmoa duten koadrila guztientzat bilera deitu duela Udalak ekainaren 6rako, aste-

lehenerako. Bilera 19.00etan hasiko da Portaleko 3. pisuko batzartokian.

Eta astelehenean 14.00etan itxiko da aurtengo sanjuanetan txosna ipintzeko eskaerak jasotzeko epea. Beraz, txosna ipini nahi baduzue eta oraindik eskaera aurkeztu barik bazaudete, aipatutako ordua baino lehen jo beharko duzue Pegorara eta bertan eskaera onartzeko eskatutakoa aurkeztu. Txosnen kokapenaren nondik norakoak adosteko bilera ekainaren 8an (eguztenean) egingo da, 12.30etan, udaletxeko 2. solairuan.

ARABA EUSKARAZ 2011
Izan zirelako gara, garelako izango gara

AUTOBUS
ZERBITZUA

ekainak 19
LAUDIO
ikastola

8
euro

IRTEN:
10.00etan (Ego Gainetik)

BUELTATU
19.30etan

- J.A. MOGEL IKASTOLAKO GURASOEN ELKARTEA
- ...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEA

2. EDIZIOA
IMH SARIAK
Ekainak 23 / 12:00etan

Ekainak 23ko 12:00etan
www.ihm.es weborrian

ENPREA BARRILEAN

ENPREA BARRILEAN

IKASLE OHI APAGARRIA / IKASLE APAGARRIA / FERRIKAZO ARLOKO IKASLEA
2011koak naitzek eta?
Ikasle sariak weborrian 100 euroko banketa poltsa...

ingurientzia Aurrenekitasun ekainak 17
Ikasle eta irakasle zehar egunak!

www.ihm.es Tel: 945 22 22 22

IMH Egitarau
FERRIKAZO ARLOKO IKASLEA
Ikasle sariak 100 euroko banketa poltsa

Dentistak

- odontologia biologikoa eta orokorra
- terapia neurala
- osteopatia

miren albistegi sojo

HELBIDE ETA TELEFONO BERRIAK

Errebal, 14
t. 943 201 721

T. Anitua 16, behea
Tel. 943 20 73 57

AMAÑA

HORTZ KLINIKA

ARAT Hartz Klinika

Hartz-osasuneko profesional taldea zure zerbitzura

Hortz, konplexioa eta konkritiko harrak... Hurdakako kontrol...

943 20 18 51

m bista eder



Inbarrak gazte egiten gaitu

Inplante eta Hartz-Estetikan adituak

Bista Eder, 19 - behea -EIBAR-
943 70 00 82 / 943 20 84 75



Monica Martín Fonseca
DOKTOREA

644 kolegiatu zkia.

calbetón hagin klinika

Tel. / Faxe: 943 03 33 03

Fermin Calbeton, 6 - 1. A

clinicacalbeton@euskaltel.net

Pedro Etxebarria Gisasola
DENTISTA

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara

EGUNERO

Calbeton 19 - 3. ezk.

Tfnoa: 943 20 72 17

OSASUN



GASTESI

Hortz-Klinika

Jesus M^a Gastesi - Ane Gastesi

Odontologia orokorra / Ortodontzia
Inplanteak / Laser Teknologia

Bidebarrieta, 10-2. eskuma 943 70 00 90



IRAZABAL
clinica dental

Julian Etxebarria, 12 - 1. esk.

Tel. 943 208552

A. Zulueta, A. Murillo eta S. Sierra DOKTOREAK

ZERBITZUAK: Ortodontzia - Protesiak - Inplanteak
Hartz-Estetika - Haurrentzako Tratamendua

BEGOÑA IZAGIRRE MENDIKUTE
DENTISTA

Untzaga 5 - 4. 943 70 23 85

EGUNERO



invisalign
Ikusten ez den ortodontzia

Ortodontzia
ume eta
helduentzat

M^a Dolores Olaizola Doktorea

EIBARKO ZENTRO MEDIKOA

Urkizu, 13 (Orbeako Dorreak)
Telf.: 943 120 200 - 943 425 706
www.mariadoloresolaizola.com

MIGUEL SEMINARIO
ZURIARRAIN ODONTOLOGOA

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Inplanteak

Bidebarrieta, 7 - 1. esk. 943-702896

UNTZAGA
hartz-klinika

egunero

Untzaga, 2 - 1. Eskuma
Tfnoa. 943 70 25 92

Errehabilitazioa

CRF AMOSTEGI



ERREHABILITAZIOA

- * Fisioterapia / Errekuperaketa funtzionala
- * Logopedia
- * Inkontinenzia urinarioak
- * Kirol medikuntza
- * Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) San Ignacio 2 (ELGOIBAR)
Tfnoa. 943 20 34 46 Tfnoa. 943 74 33 74

Patronato
Eibarrés

Errehabilitazioa
eta Fisioterapia

ZENTRUKO SENDAGILEA: Ibarra doktorea

Urkizu 9 - behean

EGUNERO (08.00 - 19.30)

Tfnoak. - 943 12 12 80 eta 943 12 03 58
Faxe - 943 12 03 58

patronatorehabi@terra.es


Estetika klinika

abontza
clinica estetica

- Barizeak
- Kirurgia Estetikoa
- Dietetika eta Nutrizioa
- Gorputz Birmoldaketa
- Fotodepilazio Medikoa

Egunero, 6. behean - Tel.-Fax. 943 906 044
www.clinica-abontza.com

Hemen zure tokia
izan nahi baduzu
deitu 943-206776
telefono zenbakira



GGDA

Fisioterapia




ANE MENDIA
970 Kolegiatu zbkia.
ARRAQUETA, 20
T.F.: 943 53 06 42
ane_mendia@hotmail.com

FISIOTERAPIA ZENTRUA



FISIOTERAPIA
ENENKO MAILAGARAI OSTEOPATIA
901 kolegiatu zbkia. NEUROLOGIA
NEURO-ESTIMULAZIOA
S. Agustín, 2-4 - M. lokala Tel. 622 14 58 58



- fisioterapia
- osteopatia
- errehabilitazioa

Manu Sánchez FISIOTERAPEUTA

Juan Gisasola, 14
Telefona: 943 12 70 78

Okulistak



JOSE ALBERDI
ARRATSALDEZ

San Juan 11 - solainurtea
943 20 19 82



Clínica Oftalmológica RECALDE
Oftalmología Clínica

Plaza Barria, 2 - 2º
Tfnoa.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com

Podologoak

- Kiropodia, gogortasunak eta kailuak
- Atzazkal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak



ELENA AIZPUN
PODOLOGOA
124 kolegiatu zenbakia

HELBIDE BERRIA
T. Etxebarria (DOS DE MAYO), 5 - 1. A
943 12 14 93



BIDEBARRIETA, 48
EIBAR
943 203050

ERDIKO KALE 54
ARRASATE
943, 799746

PODOLOGOA
Ereiko Klinika

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)



PODOLOGOA

Maidor Lopez Etxebarria

Arragueta 2 Bis-B, Behea C
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.



PODOLOGO
T. ORTOPEDICO

Iñaki Rivero Zabaleta

Calbeton, 4 - 2.
(Untzagako dorrea)

Tel. 943 20 86 41

Psikologoak

AROR
PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA
----- (Ume eta helduendako) -----

Ana Artamendi eta Beatriz Ortueta

- Afasiak
- Dislexiak
- Disfoniak
- Hizmoteltasuna
- Dislaliak
- Eskola arazoak
- Degluzio atipikoa

T. Etxebarria 10 - 6. ezk. (EIBAR) Tel. 943 20 27 15
Artekalea 30 - 2. B (DURANGO) Tel. 94 681 90 79

UME ETA HELDUENDAKO
PSIKOLOGIA
KABINETEA



Arrate Garitaonandia

HAUR, NERABE ETA HELDUENTZAKO
TRATAMENDUAK

Bidebarrieta, 27-B (3. ate) 943 20 22 66
a_garitaonandia@terra.es

Psikologia klinika eta
Psikoterapia zentroa



Oscar Mondragon Lili

Urkizu, 13 - behea
Telf. 943 206823 eta 686 859023

Radiologia

MADINA RADIOLOGIA

- Mamografiak
- Dentsitometriak (osteoporosi ikerketa eta balorazioa)
- Hertz-scanner 3D-etan (implanteak ezarri aurreko hezur baloraziorako)

TRAUMATOLOGOAK: Azkarate eta González Bosch doktoreak
TRATAMENDUAK hazkuntza faktoreetan aberatsa den plasmarekin


Toribio Etxebarria, 4 - 1. ezk. 943-202857

Deportiboaren Eguna ospatuko dute Arraten

HORI DOMEKAN IZANGO DA, BAINA BIHARKO ERE MARTXA BAT ANTOLATU DU KLUBAK. Mendi Taldearen eskutik, Eibarko Mendi Itzuliaren beste edizio bat egingo da goizeko 07.00etan Klub Deportiboaren aurretik irtenda. Egoarbitza, Azkonabieta, Topinburu,

Azitain, Arrate, Kalamua eta Urkotik pasatuta, Deporrera bueltatuko dira berriro parte-hartzaileak: lasai!, hamarretakoa egin ahal izango da eta Goi-mendi auzoan. Animo, zazpi ordu ingurutan amaituta izango duzue-eta!

Domekan, bestalde, 08.15etan mendibialdia hasiko da Deporretik, Arrateraino joateko; 09.30etan haur eta gurasoentzako irteera izango da, hau ere



Deporretik irtenda, baina Amabirginaren pausuetatik; ordu berean roll-eski igoera hasiko da Itzioko parkean; 12.00etan Caeloren omenezko pilota partiduak jokatuko dira Arraten; 12.30etan mendiko dominak banatuko zaizkie heldu eta haurrei; eta 14.30etan bazkaria egingo da (txartelak gaur ere jaso daitezke, 19.30etatik 20.30etara Deporren: 12 euro / haurrak, 7).

Berta Alonso judokarentzat brontzezkoa Euskadikoan

ZAPATUAN GASTEIZEKO ARRIAGA KIROLDEGIAN JOKATUTAKO XXX. ESKOLA KIROL JOKOETAN, Kalamua ordezkatzeko parte hartu duen Berta Alonso judokak ezin hobeto jardun du 63 kilotik gorako lehiaketan. Bere ligako onena izateaz gain, finalerdietan izan zuen bere porrot bakarra; hala ere, dominen borrokako lehia irabazita, 3. postua eskuratu zuen azkenean.



Urkiko nesken torneo Gasteizera


URKIKO JAIEN EGITARAUAREN BARRUAN, LAU TALDEK HARTU ZUTEN PARTE zapatuan jokatutako nesken foballaren IX. torneoan: Debako Amaiak Bat, Mutriku, Gasteiz eta S.D. Eibar. Finalerdietan argi ikusi zen zeintzuk ziren edizio honetako talde indartsuenak, Eibarrek 5-1 irabazi baitzion Amaiak Bat-i, Gasteizek Mutriku 8-0 egurtzen zuen bitartean. Azken hauek 3. postuarekin egin ziren debarrei 1-0 irabaziz eta, finalean, bana berdindu eta gero, penaltietan arabarrek gehiago asmatu zuten: Gasteizko atezaina izan zen protagonista, eibartarrek izandako hainbat gol aukera saihestu zituen-eta.

Finalerdiak foball-zaletuen Kopa txapelketan

LIVING CAFÉ ETA ALKIDEBA, NOR BAINO NOR 09.00-ETATIK AURRERA, ETA ESMORGA ETA JOSERAUTO, handik ordu eta erdira, jokatuko dira bihar goizean Unben, foball-zaletuen Kopa txapelketako finalerdiak erabaki eta finala zeintzuk jokatuko duten jakiteko. Final laurdenetan, Esmorgak (3-0 Azkena Kaltoni) eta Alkidebak (4-1 Lanús EzDok-i) erraz nagusitu ziren, apur bat gehiago kostatu zitzaion JoserAutori (3-2 Tankemans-i) eta penaltietan nagusitu zen Living Café, Aretorekin bina berdindu eta gero.

Debarrenako Ruiz onena Markinan

MARKINAKO SABIN FORURIA MEMORIALA IRABAZI ZUEN ZAPATUAN DEBARRENAKO TXIRRINDULARIAK, egiten diharduen denboraldi bikainari beste urrats bat gehituta. Lasterketak 104 kilometro izan zituen eta Lehendakari Txapelketa Sarirako




Ruiz euskaldun onena izan zen Bidasoako Itzulian ere.

puntuagarria zen. Sergio Ruiz bakarrik helmugaratu zen eta bere atzetik laukote bat sartu zen, 22 segundora; talde horretan ere afizionatu mailako indartsuenak zeuden (Haritz Orbe - Bidelan-, Raul Fernández eta Jordi Simón -Caja Rural- eta Antonio Pedrero -Seguros Bilbao-).

Romarate igerilaria Munduko Kopan

ANDER ROMARATE URBAT-URKOTRONIK-EKO IGERILARIAK 5. POSTUA LORTU ZUEN bizkar erako 100 metroko proban Manchesterren jokatutako igeriketa egokituko Munduko Kopan. Lau selekzioz hartzen zuten parte barixakuan eta zapatuan jokatutako txapelketa horretan: Britainia Handia, Europa, Amerikak eta Munduko besteak. Kopa horretan modalitate bakoitzeko munduko zortzi onenek hartzen duten parte bakarrik. Eibarko igerilariarekin izan da bertan Ana Rubio irundarra (6.a braza modalitateko 100ekoan).





Escudería Eibarko Julia Agirre sailkapeneko 2. postuan dago Euskal Txapelketan.

Karting-a ikusteko aukera Zumarragan

KARTING EUSKAL TXAPELKETAREN LAUGARREN PROBA JOKATUKO DA DOMEKAN ZUMARRAGAKO HERRI BARRUKO ZIRKUITOAN eta han izango da Escudería Eibarko Julia Agirre txapelketaren lidergoa berreskuratzeko prest. Une honetan 95 puntu ditu eta liderrarengandik hiru puntura dago, azken proban bigarren postuan sailkatu eta gero. Zumarragako estatu osoan karting pilotoei hain gutxi jarraitzeko aukera eskaintzen duen zirkuito bakarra da: *“Kilometro gutxira aukera polita dugu karting-az gozatzeko”*, diote Escuderíakoek.

Arakistain 4.a eta Tarsicio 5.a Aiako auto igoeran

Aitor Arakistain Arrateko igoeran garaile izan den Eibarko gidari bakarra indartsu bueltatu da lasterketetara eta, asteburuan jokaturako Aiako igoeran gure herriko eskuderiaren ordezkari onena izan zen, 4. postuan sailkatuta bere Seat León 1.8 Turboarekin. Bere atzetik sailkatu zen Iban Tarsicio, Ford Escort Cosworth modelo batekin; azken hau onena izan zen bere mailan. German Agredak 10. postuan amaitu zuen eta Joseba Garcíak 14.ean. Proba Aitor Zabaleta bergararrak bereganatu zuen.

200 gimnasten emanaldi berezia

EMANALDI HORI EL CORTE INGLES-EKO TERRAZAN IZANGO DA, bihar 11.30etan hasita. Ipurua Klubak antolatutako V. Topaketen barruko ekitaldia izango da, ikasturtea amaitzeko egingo diren hiru saioetatik lehena. Udarako, berriz, ikastaro bereziak antolatu ditu klubak, uztailearen 4tik aurrera Ipuruako pista berdean egingo direnak.

Bestalde, kadeteen taldeak Euskadiko txapelketa jokatuko du bihar Durangon. Graxi Arregi, Nahia Bilbao, Olaia Golzarri eta Ane San Martín dira taldekideak.



Balenciagarentzat arrantza txapelketa

SATURRARANEN ZAPATUAN JOKATUTAKO EGUNEZKO ARRANTZA TXAPELKETAN, Andres Pérez Balenciaga izan zen onena, Arturo Ortega eta Antonio Iglesiasen aurretik; azken honek pieza handienaren saria irabazi zuen. Sariak Eibarko Udalak, El Corte Inglés-ek eta probaren antolatzaileak, Diana ehiza eta arrantza elkarteak, eman zituzten.

Atleta gazteenak bikain Arrasaten

KADETE, JUBENIL ETA JUNIOR MAILAKO GIPUZKOAKO TXAPELKETAK JOKATU ZIREN zapatuan Arrasaten, Eibarko Klub Deportiboko lau atletekin, eta eurretatik hiru dominekin bueltatu ziren: horrela, Nestor Gisasolak 200 metroko proba irabazi zuen, gauza bera egin zuen Tomas Vouillozek jauzi hirukoitzean eta, azkenik, Izaro Fernández bigarrena izan zen hirukoitzean. Asier Selasek, bestalde, dominarik lortu ez arren, bere marka hobetu zuen.




Gisasola, Selas, Vouilloz eta Fernández Arrasaten.

Galdaramiñoko igoeraren 3. edizioa

URKIKO JAEKIN BATERAJOKOAN IPINTZEN DEN MENDI LASTERKETA domeka eguerdian egingo da, 12.30etan hasita. 10 kilometro eta erdi ditu lasterketak, 700 metroko desnibelarekin

Zegama-Aizkorri

Beroak baldintzatutako lasterketa izan zen domekakoa eta Kilian Jornet eta Oihana Kortazar probako irabazleek ezin izan zuten marka berririk egin eta euren atzeik sailkatutako Tom Owens eta Emanuela Brizziori segundo batzuk besterik ez zieten atera. Jornet kataluniarrak 3 ordu, 57 minutu eta 39 segundo behar izan zituen laugarren aldiz proba bereganatzeko. Eibartik hiru atleta izan genituen X. edizio horretan: Ander Barrenetxeak 114. postuan amaitu zuen (5h12'42"), Iosu Elejaldek 210.ean (5h49'50") eta Iñaki López de Gereñuk min hartuta lasterketa bertan beharra laga behar izan zuen.



Iazko Galdaramiñoko igoeraren irudia.

kariak 158. postuan amaitu zuen triatloi egutegiko proba berria. Bilboko Triatloiak lehenengo ediziotik erakutsi du berezia izan daitekeela, bai ibilbideari begira eta baita parte-hartzaileen arloan zein jendearen jarraitortasunari dagokionez. 478 triatloilari izan ziren irteera puntuan eta eurretatik 413k amaitu zuten proba. Virginia Berasategi triatleta handiak (4h29'40") irabazi zuen emakumezkoetan eta Mikel Elgezabalek (4h03'21") gizonezkoetan.





Josu Gisasola



Bilboko I. Triatloian

Eibar Triatloi Taldeko orde-

Euskal Jaixak asteburua bete eban atzera be

Asteburu bete-betia euki genduan aurrekuan 46. Euskal Jaixaren inguruan antolatutakueri esker. Azken orduan, karpa udaletzeko plazan ipiñi biharrin, jubilauean aldian ipiñi bihar izan eben antolatzailliak, Eibar foball taldiak mailla igotzeko zekan aukeriak eraginda; eta toki aldaketia batez be domekako dantza jaialdikuen kalterako izanda be, eta eguraldixa lagun, Ezpalak naziñoarteko dantza jaialdixa eguzkipian eta udaletxe parian ospatu zan domekan. Bezperan, barriz, goiz osuan martxan egon zan basarritar eta artisauen azokak jende mordua erakarri eban Toribio Etxebarria kalera. Arrakasta haundixa euki eban baitta be barixaku arratsaldeko zirko-tallar koloretsu eta alaiak. Eta karparen babesbian ospatu ziran Gozategiren kontzertua, zapatu gabeko kantu-afarixa eta domekako herri-bazkarixa. Foballarekin lotutakuak egindako kompetentziaren gaiñetik, urteroko moduan maiatzeko azken asteburuko protagonista nagusixa izatia lortu eban Euskal Jaixak atzera be.





argazkiak:
Maialen Belaustegi

Gipuzkoako ume abandonatuek, bikotekiderik gabeko amek eta sasikumeek Fraisoron izan zuten egoitza ia mende batez. Baita Eibarkoek ere; hala dio Eva Garcia autoreak, egoitza honen gainean ikerketa egin duenak. 'Fraisoroko amak, Fraisoroko haurrak' liburua aurkeztu zuen atzo.



EVA GARCIA
MAGRIÑA,
idazlea:

- Irakurlea pixka bat kokatzeko, zer izan zen Fraisoro?

Fraisoro egoitza zen: Aldundiak sustatua eta sortu berria zen Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialak diruz finantziatua; Gipuzkoan zegoen haur abandonatuen arazoari erantzuna emateko tresna izan zen. 1923tik aurrera, eraikin horren ondoan Ama-etxe bat eraiki zen ama-berri ezkongabeak beren haurdunaldiaren azken hilabeteak modu anonimoz eramateko sortua eta, erditutakoan, haurra erakundearen esku berme guztiarekin lagatzeko aukera eman ziena.

- Fraisoro aurretik zer zegoen halako kasuak jasotzeko?

Ezer gutxi. XVIII. mendera arte Gipuzkoan ez zegoen inklusarik eta probintziako haurrak, Deba bailarakoak izan ezik, Zaragozako Ntra. Señora de Gracia ospitalera eraman behar izaten zituzten. Bidaia hauek astoz edo zaldiz egiten ziren, oso baldintza penagarrietan. Bizirik iristea lortzen zuten gutxiak bizirauteko itxaropen gutxi zuten eta espositoen heriotza-tasa ikaragarria zen.

- Misterioak inguratu du historian Fraisoro. Zergatik?

Ezkontzatik kanpoko haurdunaldiak oso gaizki ikusiak ziren eta kontu haiek erabat isilpean eramaten ziren. Orain dela urte gutxira arte haurdunaldi haietako asko egoera

"berezetan" eman ziren: bortxaketak, biolentziarik gabeko engainuak eta, orokorrean, etxeko jabeek (batzuetan familiaritatekoak) emakumeekin sexu harremanak izateko onartua zuten nolabaiteko "eskubidea" rekin. Eskubidea baino, gizarte ohitura zen; horrek emakumeari arlo guztietan zitzaion estima gutxian zuen oinarria. Noski, aitatasuna ikertzea debekaturatua zegoen legez. Beraz, hobe zen guzti hori sekretupean gordetzea eta bakoitzak bere "arazoa" etsipenez eramatea. Hori zela-eta, haurra instituzioan lagatzea erabakitzen zuten emakumeei erabateko anonimotasuna bermatzen zitzaizkien eta, adopzioetan ere, haurra jatorria ezkutatzeko ohitura zegoenez, hangoa ondo gordetako informazioa izan da.

- Lekukoek nola gogoratzen dute Fraisoro?

Haur izandakoek ez dute ia ezer gogoratzen; emakumeek, ordea, bai, bolada bat eman baitzuten bertan bizitzen. Ez nien beren haurdunaldien zirkunstantzien berri galdetu, baidiz eta han bizi zutenaz: hirurek hitz onak dituzte horren inguruan. Bertako arauak gutxi ziren: haurrak ondo tratatzea, errespetuz hitz egitea eta lanean kolaboratzea, baina Karitateko Alabak jarrera gogorragoa zuten bigarrenaz haurdun bueltatzen zirenekin.



Alkatea eta Zorrrakin Jai Batzorde burua aurtengo kartel irabazlearekin. / EKHI BELAR

Sanjuanetako egitaraua aurkeztu dute

EGUAZTENEAN AURKEZTU ZUTEN MIGUEL DE LOS TOYOS JARDUNEKO ALKATEAK ETA JAVIER ZORRAKIN JAI BATZORDEBURUAK aurtengo San Juan jaierarako prestatutako egitaraua. Aurtenko urteetan egindakoaren bidetik joango dira aurtengo jaierarako jarduerak ere. Lisker taldekoek, Pedro Zelaia Kultur Elkartekoek eta Juan Antonio Mogel ikastolakoek jasoko dute omenaldia aurten eta kontzertuetan, berriz, Anari, Los Coronas eta Txarrena (Barricadako Enrique Villarreal "El Drogas"-ek 80ko hamarkadan sortutako proiektua) talde-bakarlarien emanaldiak izango dira jendea erakartzeko aurtengo apustua. Eta kale antzerkian En La Lona, Patxin

eta Potxin pailazoak eta Trapu Zaharra konpainien lanekin gozatzeko aukera izango da. Udalak 147.000 euroko aurrekontua erabili du aurtengo egitaraua osatzeko.

Marmitako txapelketa

Ekainaren 25ean jokatu da XVIII. Marmitako Txapelketa, 11.30etatik aurrera Untzagan. Parte hartu nahi dutenek osagai eta tresna guztiak eraman beharko dituzte, lapikoa barne eta gutxienez sei lagunendako beste marmitako prestatu beharko dute. Gehien jota 30 bikote onartuko dituzte eta izena emateko azken eguna ekainaren 17a izango da, 14.00etan (Pegoran, 010 edo 943708400 telefono zenbakian).

Asteburu betea Karrikan

GAUR GAUEAN 23.30-ETATIK AUERRERA DJ JAIA HARTUKO DU KARRIKA TABERNAK, DJ ADN eta DJ 2is-en eskutik. Eta bihar, berriz, umeentzako antzezki zuzena eskainiko dute 20.00etan Zurrumuru antzerki taldekoek: "Klownstrofobia mendian", 10 urtetik gorako umeentzat pentsatutako ikuskizuna. Bestalde, hilabete osoan ikusgai izango da "Equivalencias" Gasteizko diseinu eta arte eskolako ikasleen argazki erakusketa.



Berbetan-ekoak Elizondora

AURREKO ASTEAN AURKEZTU ZUTEN TOPAGUNEA EUSKARA ELKARTEEN FEDERAZIOAK ANTOLATZEN DUEN MINTZA EGUNAREN SEIGARREN EDIZIOA. Bihar (ekainak 4) Elizondon egingo den ekitaldian, hainbat herritan mintzapraktika egitasmoetan parte hartzen duten lagunek bat egingo dute, egun pasa ederra egiteko asmoarekin. Han izango dira, besteak beste, ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik Berbetan programan parte-hartzen dihardutenetako asko. Egunerako prestatu duten egitaraua 11.00etan hasiko da, Elizondoko Merkatu plazan taldeei emango zaien ongietorriarekin eta hamaiketakoarekin. Ondoren, 12.00etan ibilaldi gidatua hasiko da, tokiko berezitasunak ezagutzeko, eta 13.30etan "mintzabermuta" ailegatuko da. Bazkaria 14.30etan hasiko da, Merkatu plazan ber-



tan (eguraldi txarra eginez gero frontoian) eta ondoren, 16.00etan sari banaketari ekingo zaio. Egitaraua agurtu aurretik, 16.30etatik aurrera euskal erromerian dantzan jarduteko aukera izango du nahi duenak.

Euskal Eskola Publikoaren Jaia

DOMEKAN OSPATUKO DA EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN 20. JAIA, BILBON. Aurretik ere hainbat alditan hartu du Bilbok Euskal Eskola Publikoaren Jaia, bai Etxebarria parkean eta baita Zorrotzaurren ere, baina oraingo honetan Bilboko erdigunea hartu nahi izan dute antolatzaileek, 20. urteurrena ospatzeko aitzakiarekin. Horrela, jaia Bilboko erdigunean ospatuko da, Areatzan,

Arriaga plazan, Najan eta Erri-pako kaian hain zuzen ere. Ohikoari jarraituta, goizean hasi eta iluntzera bitartean, martxan egongo diren bost guneetan gustu guztiak asetzeko moduko aisialdi-eskaintza egongo da martxan. Besteak beste Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak, Txan magoa, Vendetta taldea, txotxongilo emandaldiak, ludoteka, puzgarriak, kirol gunea eta beste hamaika



jarduera pilatu dituzte aurtengo jaiaren egitarauan.



Cielito eta gaiteroen kontzertua

EIBARKO CIELITO MUSIKA BANDAK ETA EIBARKO GAITEROEK KONTZERTUA EMANGO DUTE DOMEKAN, 12.30etan Coliseoan, Iñaki Orbegozok zuzenduta. Aurretik, baina, 11.00etan kalejira egingo dute Estaziño kalean hasita. Kontzertuan eskainiko duten programan honako piezak batu dituzte: "Arraunlariak" (pasodoblea, Miguel Amenabar), "Jaialdia" (bilduma, Iñaki Urkizu), "Aires vascos n°2" (herrikoia, Jose Franco), "Garijo 2" (diana, Txomin Mujika) eta "Hego-Arabako dantzak" (herri-dantzak, Juanma Sáez).

Dibujo eta zeramika eskolako erakusketa

ATZO ARRATSALDEAN ZABALDU ZUTEN PORTALEAN HILAREN 19-RA ARTE IKUSGAI izango den Margo, Marrazki eta Zeramika udal eskolen erakusketa, Portalean. Eskoletako ikasleek ikasturtean egindako lanak ikusteko erakusketa aretora joan daiteke, martitzetik domekara 18.30etatik 20.30etara. Bestalde, Dibujo

zein Zeramika eskoletan matrikula betetzeko epea zabalik dago eta interesa dutenek irailaren 7ra arte izango dute izen-emateko aukera. Matrikulazioa Pegoran egingo da, astelehenetik eguenera 09.00-etatik 14.00etara eta 17.00etatik 19.30etara eta barixakuetan, berriz, baka-riko goizeko ordutegian (09.00-etatik 14.00etara).



laburrak

SHAKIRAREKIN DANTZAN

Bihar San Mamesen Shakirak emango duen kontzertuan berarekin batera "Waka Waka" kanta ezaguna dantzatzeko hamar lagun aukeratu dituzte, aste honetan bertan egindako kasting-ean, eta horietako bat Ane Miren Barrero 14 urteko eibartarra izan da. Epaimahaiko kideak ahozabalik geratu ei ziren bere saioa ikustean eta zuzenean hautatu zuten bihar kontzertura joango diren 40.000 lagunentzako aurrean dantzan jarduteko.

MUSIKA ESKOLAKO MATRIKULA

Juan Bautista Gisasola Musika Eskolan Hizkuntza Musikalean matrikulatzeko epea ekainaren 22ra arte egongo da zabalik. Matrikula betetzeko Pegorara jo behar da eta izena eman ahal izateko 2005. Urte baino lehen jaiotakoa izan behar da.

EUSKERAZKO SOFTWAREAK ESKURAGARRI

Euskaraz eskuragarri dauden softwareak deskargatzeko aukera eskaintzen dute www.euskara.euskadi.net helbidean, euskarari eskainitako atalean. Nabigatzailea euskaraz konfiguratuz jarraitu eta sarean dauden hiztegiak erabiltzeko eskuliburua, ordenagailuz lagundutako itzulpen tresnak eta hainbat ordenagailura jaisteko aukera ematen dute atarian.



“Benetako Demokrazia Oin” taldiak hasi eban Madrilgo Puerta del Sol plazako protestaldixa. Haundittuz jua da, gaur egungo mobimenduak erakusten dabenez, eta holan jarraitzeko asmua dake: azkena, mundu osoko protestaldixa egitteko deialdixa egin dabe urriaren 15erako, “herritarrak ez dira politikuen eta bankarixen menpeko merkantziak” aldarrikatzeko. Gu Bartzelonako akanpadan parte hartu daben eibartar batekin izan gara. “Ez izenik, ez argazkirik” mobimenduari atxikittako esloganari jarraituta, ez dau protagonismorik gura. Argazkixarena barkatu detsagu Nerea Mendikuteri, baiña irakorliari zor detsagun errespetuarengaittik bere izena aittatzia laga desku.

“M-15eko mobimendua indartsu dago”

Eibartarrak Urbanismo Masterra dihardu egitten Bartzelonan: “Urte bikua da eta oingua dakat azkena. Gaiñera, azterketetan nago buru-belarri sartuta”. Madrilgo Puerta del Sol-en moduan, manifestaziñua izan zan Bartzelonan maiatzaren 15ian: “Gogoratzen dot gurasuak hamen zirala. 18.00etan hastekua bazan be, hainbeste jendekin, azkenian ordubete geruago hasi zan, Plaza Kataluniatik Ciudadelaraiño”.

Azterketak direla-eta, “azken egunotan pixkat aparte egon naiz. Lehen be iñoiz ez naiz lo egitten-eta bertan geratu, baiña bai lagundu dotela, batez be Internacional arlokeri dittudan kontaktuak-eta pasatuz”. Ez dau uste kanpotik jendia konturau danik mugimenduak dakan indarrak: “Telebisiñuan halakorik agertzen ez bada be, jende oso ona dago tartian: programadoriak ikaragarriak dira eta beste arluetan be balixo haundiko jendia dago”. Plazia “super-antolauta” daguala diño: “Sarrerian informaziño-dendia dakazu eta, gero, egunero sortzen jua diran komisiñuak: Ikus-Entzunezkuak, Konteniduenak eta Naziñoartekua dira inportantienak”. Asanbleak independentiak izatiaz gain, komisiño bakotxian gitxieneko printzipiak onartzen dira: “Ikusgarrixa da 5.000 lagun inguru lurrian jarritta eta jendia botua emoten. Eskua mugitzen da adostasuna erakusteko; kontrako eritzixa erakusteko, X bat egitten da besuekin. Zaratarik ez

etaratzia da kontua. Eta 20 lagunetik go-ra ados ez bada goz, atzera botatzen da erabagixa, barriro estudixatzeko”. Ulertzen dau “demokrazia pura eta dura sufritzia tokatzen” jakuela, baiña gizarte hobiaren mesedetan dala siñestuta dago.

Azken aldixan te-lebisiñuak eta komu-nikabidiak mobi-



MINIMUEN DEMANDA BATZUK

- **POLITIKUENDAKO PRIBILEGIXO GEHIXAGORIK EZ:** Soldatak murriztu, pensiñuak egokittu eta tope bat ipiñi eta korruptuak kanpora
- **BANKERUENDAKO PRIBILEGIXO GEHIXAGORIK EZTA:** Erreskaterik ez, arazoak diittuenen nazionalizaziñua eta paraiso fiskalen debekua
- **FORTUNA HAUNDIXEN PRIBILEGIUAK BE KANPORA:** Estatuko 50 fortuna haundixeneri funtzionarixueri aplikatutako %5eko errekortiarekin estatuko defizita konponduko litzateke

- **SOLDATA DUIÑAK ETA BIZI-KALIDADIA MUNDU GUZTIARENZAT:** Gehixengo eta gitxiengo soldatak zihaztu
- **ETXEBIZITZARAKO ESKUBIDIA:** Erabiltzen ez diran etxebizitzaren espropiazziñua eta espekulaziñuaren debekua
- **KALIDADEZKO ZERBITZU PUBLIKUAK**
- **LIBERTADIAK ETA DEMOKRAZIA PARTE-HARTZAILLIA:** Hauteskunde Legiaren aldaketia eta erreferendumak
- **INGURUGIRUA**



menduari indarra kentzen ahaleginfu dirala diño: “Atenasen millaka lagun batu dira, Coimbra be indar berezixa hartu dau mobimenduak, Parisen, Lyonen, Perpignan-en... Manifestaziñuak izan dira Managuan eta Uruguayn...”. Mossos-ek Kataluiñako polizixak egindako kargia dala-eta, pasau egin zirala diño:

“Goizeko 06.00etan etorri ziran. Txarrena ordenadoriak-eta dendatik etara eta basurara bota zittuela!”. Komertzianten batzuren kejak dirala-eta, Bartzelonako egoeria desbar-diña dala nabarmendu dau: “Hamen karre-teriak inguratzen gaitu eta ez detsegu iñola-ko kalterik sortzen. Madrillekuen artian be, aldeko jarrera daken dendarixen iritxixak komunikabidiak ez dittue kaleratu”.


Hamendik aurrerakua zelan ikusten daben galdetuta, “minimuak erredaktatzeko puntura aillegau gara. Hasierian fisikoki egon bihar bazan be, hamendik aurrerakua interneten jarraitzekua izango da, eta ha-mengua auzuetara pasatzen jua biharko dogu, bestelako indarra hartu deixan”.

laztanak emoten...


Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, ESTHER Losada, bixar lau urte beteko dozuz-eta. Aitta eta amaren partetik.



Zorionak, AIZPEA, aurreko domekan zazpi urte bete zenduaz-eta. Patxo bat etxekuen partez.




Zorionak, JONE, domekan hiru urte beteko dozuz-eta. Patxo haundi bat aitaxo, amatxo eta famelixa partez.




Zorionak, LEIRE, gaur bost urte egiten dozuz-eta. Ane ahiztia eta famelixaren partez.




Zorionak, HAIZEA, hillaren 1ian urtebete egin zenduan-eta. Famelixaren partez.




Zorionak, IRATI, gure printzesa, atzo zazpi urte egin zenduaz-eta. Etxekuen partez.




Zorionak, IZARO, astelehenian lau urte edar egingo dozuz-eta. Muxu potolua famelixa guztiaren partetik.



Zorionak, MARIA Aranburu, zure 6. urtebetetzian. Domekan etorri ospatzera amama Maritxuren etxera.




Ongi etorri, SUGAR, oso pozik gagoz-eta etorri ziñanetik, batez be zure anaixa Beñat. Muxu edar famelixa guztiaren partez.



Zorionak, INES, bixar lau urte egingo dozuzelako. Muxu haundi bat famelixaren partez.



Ongi etorri, UNAX Larrañaga Pagei, eta zorionak aitaxo eta amatxori! Muxu haundi bat hiruroi etxekuen partez.



Zorionak, ANDER, TXAPELDUN, domekan sei urte beteko dozuz-eta. Muxu haundi bat famelixaren partez.

zinea Coliseoan



"The company men"


Zuzendaria: Jhon Wells

Aktoreak: Ben Affleck, Chris Cooper, Kevin Costner, Maria Bello

4an: 17.00, 19.45, 22.30
5ean: 17.00, 20.00
6an: 20.30



Zorionak, ALBA, astelehenian urtebete egingo dozuzelako. Joel eta etxekuen partez.



"Los chicos están bien"


Zuzendaria: Lisa Cholodenko

Aktoreak: Annette Bening, Julianne Moore, Mark Ruffalo, Mia Wasikowska

4an: 17.00, 19.45, 22.30
5ean: 17.00, 20.00
6an: 20.30



Zorionak, KATRIN Alzelai, gaur urte bi betetzen dozuz-eta. Gure printzesarentzat, famelixaren partez.



"X-Men: 1ª generación"

Zuzendaria: Matthew Vaughn

Aktoreak: Kevin Bacon, James McAvoy, Rose Byrne, Jennifer Lawrence

4an: 16.30, 19.30, 22.30
5ean: 17.00, 20.00
6an: 20.30

DENBORAPASAK

		7	3				8
	5		7	1			
8	9				3		
	4	5				1	
5							7
	9			4	2		
		1			8		9
			1	2		3	
2				8	1		

sudoku

HILDAKOAK

- Jose Luis Iriondo Egaña. 75 urte. 2011-V-19.
- Begoña García Paredero. 85 urte. 2011-V-25.
- Julia Baroja Lizundia. 2011-V-26.
- Mari Fran Arana Irastorza. 60 urte. 2011-V-26.
- Miren Arizmendiarieta Ansotegi. 78 urte. 2011-V-26.
- M^o Angeles Pérez Alonso. 85 urte. 2011-V-27.
- Antonio Txurruga Aranburu. 87 urte. 2011-V-29.
- Felipa Zubia Irazuegi. 94 urte. 2011-V-31.
- Maria Arrieta Arregi. 92 urte. 2011-V-31.
- Maite Gastesi Uzkudun. 90 urte. 2011-V-31.

JAIOTAKOAK

- Anas El Kamali Adouzi. 2011-V-7.
- Andoni Urrea Bereziartua. 2011-V-19.
- Sugar Hernández Arce. 2011-V-19.
- Telma Ferreiro Cenzual. 2011-V-20.
- Maddi Alfageme Lazpita. 2011-V-22.
- Enara Rodríguez Quintas. 2011-V-22.
- Solomon Valentín Lupu. 2011-V-23.
- Jone Conde Argueda. 2011-V-24.
- Endika García Dávila. 2011-V-24.
- Unax Larrañaga Pagei. 2011-V-25.

horoskopoa

ARIES

Abentura zirrargarria biziko duzu domekan. Egun lasaia izatea espero bazenuen, presta zaitez, ez baituztu atsedenerako denborarik izango.

TAURUS

Tentazio handia izango duzu itxulapikooa apurtzeko, baina izan pazientzia, hor aurretutakoak askorako balioko dtizu-eta!

GEMINI

Laguntza ekonomiko handia jasoko duzu eta aspaldian buruan zeneukan gauza bat egin ahal izango duzu. Hori bai, baten bat gonbidatu dezakezu.

CANCER

Eztulak lagunduko dizu aste osoan zehar. Ez zara gaixo egongo, baina damutuko zaizu hainbeste izotz edatea: benetan damutu ere.

LEO

Hobe duzu helburu handirik ez ipintzea, hauek lortu ezean behera baitzatoz. Saiatu eta egin aurrera, biharkoan askorik pentsatu gabe.

VIRGO

Izotz pixkatekin sendatuko duzu hartutako golpea. Begira ezazu nondik zabilzan! Mimoak eskatzeko aitzakia paregabea, zalantza barik.

LIBRA

Pozez betetako egunak aurrean dituzunak. Dena alde izango duzu eta ezingo duzu gehiago eskatu. Nahi zenuena eskuetan edukiko duzu.

SCORPIUS

Ez zara oso umore onez ibiliko, baina ingurukoak animatzen saiatuko dira. Barreren bat edo beste eragingo dizute, ziur. Bizitza zoragarria da!

SAGITTARIUS

Gauzak non uzten dituzun ez duzu gogoratzen eta zoroaren pare ibiltzen zara horien bila. Beranduegi da ordenatua izaten ikasteko?

CAPRICORNIUS

Adostasun batera iritsiko zarete eta pozik geratu zarete alde biak. Errespetua erabiliz gero urrun heldu zaitezke ikasiko duzu

AQUARIUS

Kirola egiteko asmoa duzula zabaldu lau haizetara eta beti daukazu etxean geratzeko aitzakiren bat. Tira, ez dizu kalterik egingo kirol pixka batek.

PISCIS

Zure begiek distira berezia daukate azken egunotan eta arrazoi sendoa dago hori horrela izateko. Zeinen polita den maitasuna, ezta?

Barixakua 3

URKIKO JAIAK

19.00.- Jaien hasiera.
19.15.- Buruhaundiak, fanfarreakin.
19.30.- Nagusiei omenaldia, Cepa-ren parean.
20.00.- Herri txikiteoa eta fanfarrea.
23.30.- Berbena, Africa orkestraren eskutik. Arrateko Andra Mari herri ikastetxean.

BILERA

19.30.- Jaixak Herrixak Herrixandako bilera irekia. Montekasino pareko parkean.

DANTZA

10.00.- Biraka dantza taldearen "Eurodancing 2011". Coliseoan.

KONTZERTUA

23.30.- DJ Jaixa Karrikan: DJ ADN, DJ 2is. Karrikan.

Zapatua 4

DEPORREN EGUNA

07.00.- Eibarko mendi itzulia. Egoarbitza, Azkonabieta, Topinburu, Azitain, Arrate, Kalamua, Urko, Klub Deportiboa. Irteera Deportibotik.

MINTZA EGUNA

09.00.- Elizondora, Mintza Eguna joateko autobusaren irteera. Ego Gainetik.

EUSKARAZ BIZI

10.00.- Kirola Euskaraz Bizi ikastolako ikasleen olinpiadak. Iturburur.

MAHAIA

10.00/13.00 eta 16.00/20.00.- Organu-emaiztaren inguruko mahai-informatiboa, Alcer Gipuzkoaren eskutik. T. Etxebarria kalean.

URKIKO JAIAK

11.30.- Diana, Eibarko Galiziako Etxeko gaiteroen eskutik.
12.00/14.00.- Umeentzako jolasgunea. Arrateko Andra Mari ikastetxean.
12.30.- Salda eta txorizoa, Galiziako Etxeko gaiteroek girota, Cepa tabernaren parean.

16.00/18.30.-

Umeentzat jolasgunea. Arrateko Andra Marin.
17.00.- X. Toka eta igel-toka txapelketa. Polonia Etxeberria kalean (Rioja tabernaren aldamenean).
19.00.- Cava eta Otarrainskaren Jaia, Batukabrazil taldeak alaituta. Urkiko kaleetan.
21.45.- Herri-afaria. Arrateko Andra Marin.
23.30.- Berbena, Becuadro orkestarekin. Arrateko Andra Marin.

BAZKARIA

12.30.- 1941ean jaiotakoak elkartzea (Untzagan).
14.30.- Bazkaria. Caserio tabernan.

Domeka 5

DEPORREN EGUNA

08.15.- Mendi ibilaldia Deporretik abiatuta. Santa Kurutzetik zehar, Kalamuako Parlamentua, Kalamua, Arrate.
09.30.- Haur eta gurasoentzako irteera: Deporretik Arratera Amabirjinaren pausuetatik.
09.30.- Itzioko parketik roll-ski igoera eski taldearen eskutik.
12.00.- Caeloren omenezko eskupilota partidua, pelota batzordearen eskutik. Arratera doazeneztat salda eta txorizoa.
12.30.- Nagusi eta hurrei mendiko dominak banatzea, Kezka dantza taldearen partehartzearekin.
14.30.- Bazkaria Arrateko zelaian.

MENDI MARTXA

08.30.- Jaizkibelera mendi martxa, Eibarko Gazte Asanblada Barrixak antolatuta. Irteera Ego Gaineko autobus geltokitik.

KALEJIRA ETA KONTZERTUA

11.00.- Estaziño kaletik hasita, Cielito Musika Bandaren eta Eibarko Gaiteroen kalejira.
12.30.- Kontzertua: "Arraunlariak", "Jaialdia", "Aires vascos n°2", "Garijo 2" eta "Hego-Arabako dantzak". Coliseoan.

URKIKO JAIAK

12.00.- Meza auzoko hildakoen alde. San Jose Obrero parrokiak.
12.30.- XIII. Paella Lehiaketa.
12.30.- III. Mendi Lasterketa Galdaramiñora.
14.00.- Paella lehiaketaren epai-mahaiaren erabakia.
16.45.- Umeen jaia eta berbena. Arrateko Andra Mari ikastetxean.
18.00.- Txokolate-jana. Arrateko Andra Marin.
18.00.- Sari-banaketa eta Urrezko Otarrainska ematea. Arrateko Andra Marin.
18.00.- Disco Festa taldearen emanaldia. Arrateko Andra Marinn.
20.00.- Jaien amaiera.

UMEENDAKO ANTZEKIZUNA

20.00.- "Klownstrofobia mendian", Zurrumuru-ren eskutik (10 urtetik gorakoak). Karrika tabernan.

Astelehena 6

KOADRILEKIN BILERA

19.00.- Sanjuanetan antolatutakoetan parte hartu nahi duten koadrilentzako. Portalean.

Eguaztena 8

DANBORRADA

19.00.- Sanjuanetarako umeen entsegua (helduena 20.00etan). Beistegi eraikinean (B. Sarasketan).

DANTZA

19.00.- Eibarko Dantza Garaikide taldearen emanaldia. Coliseoan.

Eguena 9

ODOL-ATERATZEA

18.30.- Odol-emaileentzako odol-ateratzea. Elkartearen lokalean (Pagaegi, 3).

DANBORRADA

19.00.- Amañako jaietarako, umeen entsegua (helduena 20.00etan). Amañako ikastetxean.

DANTZA

19.00.- Eibarko Dantza Garaikide taldearen emanaldia. Coliseoan.



erakusketak

– Ekainaren 19ra arte

MARGO, MARRAZKI ETA ZERAMIKA UDAL ESKOLEN erakusketa. *Portalean.*

– Ekainean

“EQUIVALENCIAS” argazki erakusketa (Gasteizko Diseinu eta Arte Eskolako ikasleak. *Karrika tabernan.*

JOSE VILA-ren argazki erakusketa. *El Ambigú tabernan.*

JOSE IGNACIO DE CASTRO-ren argazki erakusketa. *Portalea tabernan.*



lehiaketak

– **Sanjuanak 2011 Marmitako txapelketa.**

Noiz: Ekainak 25, 11.30etan Untzagan. Informazioa eta izen-ematea: *Pegoran, ekainaren 17ra arte.*

ikastaroak

– **UEUko udako ikastaroak.**

Noiz eta non: Ekainaren 27tik uztailaren 1era eta uztailaren 11tik 15era (Eibarren), uztailaren 4tik 6ra (Baionan) eta uztailaren 18tik 20ra (Iruñean). Informazioa: www.ueu.org / 943821426.

bekak

– **Juan San Martin ikerketa beka.**

Gaia: Mendizaletasuna. Informazioa eta lanak entregatzea: Pegoran edo www.eibar.net helbidean. Irailaren 1etik urriaren 15era arte.

diru-laguntzak

– **Euskara ikasteko.**

Norentzat: 12 urte arteko seme-alaben guraso edo tutoreentzat, merkatariarentzat, ostalarientzat, euskera plana duten enpresetako beharinentzat, 65 urte edo gehiagoko jubilatuentzat. Eskararak: Abuztuaren 31a baino lehen, Pegoran.

txosnak

Eskararak: Ekainaren 6ra arte (14.00ak arte), Pegoran. Bilera ekainaren 8an, 12.30etan udaletxean.

farmaziak

3, barixakua

EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
GAUEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)

4, zapatua

EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
GAUEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)

5, domeka

EGUNEZ **Las Heras** (Sostoatarren, 10)
GAUEZ **Las Heras** (Sostoatarren, 10)

6, astelehena

EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
GAUEZ **Cortina** (Zubiaurre, 29)

7, martitzena

EGUNEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)
GAUEZ **Ugarte** (Sta. Zezilia, z/g)

8, eguaztena

EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
GAUEZ **Ibarrondo** (Zeharkalea, 2)

9, eguena

EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
GAUEZ **Aranburu** (Gipuzkoa etor., 46)

10, barixakua

EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
GAUEZ **Alberdi** (Zubiaurre, 9)

telefono jakingarriak

SOS delai	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa.....	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	901 20 20 20
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak.	943 46 46 22
Gurutze Gorria..	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia.....	943 03 25 00
Torrekuia.....	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	902 54 32 10
Pesa	902 10 12 10
Taxiak.....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon. ..	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen	650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 21.10. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara ordu, 15.00, 15.30etatik 18.30etara ordu, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

EIBAR-BILBO. Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.

EIBAR-GASTEIZ. Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

EIBAR-IRUÑEA. Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

EIBAR-ARRATE. Zapatuak: 14.15. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Zapatuak: 14.45. Jaiegunak: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30.

EIBAR-ELGETA. Lanegunak: 13.30 eta 20.30. Jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Lanegunak: 14.00 eta 20.50. Jaiegunak: 12.30 eta 19.30.

EIBAR-MENDARO. Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara ordu. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara ordu eta 21.55.

tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egunero: 08.13etatik 22.15etara ordu, 10.55 eta 21.55. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunero: 07.47etatik 20.47etara ordu, 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

EIBAR-BILBO. Egunero: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.56 eta 21.56. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunero: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Pisua salgai Mendaroko erdialdean. 80 m². 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Kanpora begira. 126.000 euro. Deitu astelehene-tik barixakura. Tel. 943-700690.
- Pisua salgai Juan Antonio Mogel kalean. 2 logela, egongela, sukaldea, komuna eta ganbara. Dena kanpora begira. Tel. 610-603631.
- Pisua salgai Armagin kalean, Txaltxa-Zelai ondoan. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna eta ganbara. Bizitzera sartzeko moduan. Negoziagarria. Tel. 675-700864.

1.2. Errentan

- Pisua alokagai Eibarren. 3 logela eta komun bi. Eguzkitsua, terrazarekin eta inguru loretsuan. Dena kanpora begira. Tel. 943-201294 eta 645-728317.
- Logela alokagai. Etxetik independentea, intimitate osoarekin. Komuna duxarekin, mikrouhinak eta hozkailua. Garaje plaza aukeran. Tel. 635-731831.
- Pisua alokatzen da Ermuan. Logela bi. Iggogailua. Tel. 661-653160.

3. Lokalak

3.1. Salgai

- Garajeak salgai Txontan, 6-8 zenbakietan. Prezio interesgarria. Deitu arratsalde. Tel. 696-409217.
- Garajea salgai Amaña 14an. Tel. 635-719595.

3.2. Errentan

- Garajea hartuko nuke alokairuan Ipuruako dorreen inguruan. Tel. 620-917212.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. Lana

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko orduka (10.00etatik 17.00etara). Tel. 680-969415.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko, ziurtagiri sozio-sanitarioarekin. Esperientzia. Tel. 690-791689.
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Tel. 685-797220.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 605-129530.
- Neska arduratsua eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 681-322442.
- Neska arduratsua eskaintzen da 15.00etatik aurrera edo lan egiteko. Gaeuz ere. Esperientzia. Tel. 699-706869.
- 45 urteko emakumea eskaintzen da arratsaldetan eta asteburuetan nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 605-862219.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Interna, externa edo orduka. Tel. 663-682150.
- Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 651-836353.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 674-716699.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Tel. 648-603029.
- Produziorako tekniko eskaintzen da lantegia eramateko, ISO9001 jartzeko eta kontabilitatea eramateko. 21 urteko esperientzia. Tel. 638-925415.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Tel. 690-134485.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketa lanetarako eta sukaldari-laguntzaile jarduteko. Tel. 695-182457.
- Mutila eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 620-853295.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

- Gizonezkoa eskaintzen da harakin edo sukaldari-laguntzaile jarduteko eta nagusiak pasiatzeko. Tel. 686-274490.
- Neska arduratsua eskaintzen da astegunetan arratsaldean eta asteburuetan edozein lan egiteko. Esperientzia. Tel. 681-322442.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketak egiteko eta gaeuz laguntzeko. Tel. 656-493864.
- Neska eskaintzen da 13.00etik 16.00etara nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako. Tel. 678-972690.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko garbiketak egiteko. Tel. 669-068439.
- Haur Hezkuntzako ikasle euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Tel. 685-778554.
- Neska eskaintzen da zapatu, domeka eta jaiegunetan nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 645-651309.
- Neska eskaintzen da arratsaldean garbiketak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 692-691964.
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Tel. 617-844142.

4.2. Langile bila

- Emakume euskalduna behar da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 652-743249.
- Kamarera/o behar da asteburuetarako Sorluzen. Tel. 670-541347.
- Kamarera/o euskalduna behar da Eibarko taberna batean. Tel. 685-738435. Aitor.
- Kamarera euskalduna behar da jatetxe baterako. Tel. 943-121262.
- Odontologoa eta klinika-laguntzailea behar dira Eibarko hortz-klinika batean. Beharrezkoa esperientzia izatea. Tel. 943-700082.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

- Ingeniari kimikoak klase partikularrak emango lituzke. Tel. 685-797220.
- Alemanierazko klaseak ematen ditut haur, gazte eta helduentzat. Tel. 647-275374.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- Gasteizeko "Azkena Rock Festival"-erako sarrera bi salgai. Tel. 652-716135.
- Sehaska bi salgai, bikientzako egokiak. Edoskitze-burkoa opari. 180 euro. Tel. 669-346335.
- Baserritar trajea salgai. Estreintatu gabe eta abarketekin. Neskatilaren 5 tailakoa. 90 euro. Tel. 696-367250.
- Plegatzeko aulki-makila salgai, Chicco markakoa. Autoko segurtasun aulkia (9-25 kilo) eta egurrezko tronarekin. Ia berria. Tel. 617-256466.
- Binilozko diskoak, singleak eta LPak erosten ditut. Tel. 943-572057.

6.3. Galdu/Aurkitu

- Cimarron markako txamarra bakeroa galdu dut. Aurkitu baduzu, deitu. Tel. 626-887589.

6.4. Bestelakoak

- Bigarren eskuko bideo-kamara digitala behar da. Tel. 676-556739. Iñaki.
- Barixakuan, ekainaren 3an, 20.00-etan Coliseoan egingo den dantza-funtziorako sarrera bat behar dut. Tel. 943-200898 eta 645-720594. Arrate.
- Umeak bizikletan eramateko aulkitxo behar dut. Tel. 646-293311. Alberto.

Lanerako gertu!



MGEP

MONDRAGON UNIBERSITATEA

www.mondragon.edu/mgep

Oñati gestio heziketa

www.mondragon.edu/empresagintza

**GOI-MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK
2011-2012**

Izenematea
Ekainaren 1etik 10arte

Matrikulazioa
Uztailaren 4tik aurrera

MGEP	OÑATI Gestio Heziketa
<ul style="list-style-type: none"> • Sistema Elektrotetikoa eta Automatizazioak • Erregulazio eta Kontrol Sistema Automatizatuak • Sareko Informatika Sistemak Administrazioa • Fabrikazio Mekanikako Diseinua • Fabrikazio Mekanikako Produktibitate Programazioa • Industri Ekipamendu Mantentzeak 	<ul style="list-style-type: none"> • Administrazio eta Finantza • Idazkaritza • Merkataritza, Buztintza eta Marketing-a
Kontsulta pertsonalak:	
943 71 31 91 E-posta: sarrarian@epu.mondragon.edu	943 71 00 09 E-posta: empresagintza@empresagintza.mondragon.edu




Euskara ikasteko bide zuzena

**UDAKO IKASTAROAK
2011**

**Matrikula
zabalik**

Bekak eta diru-laguntzak ditugu. Azterketa gaindituz gero, matrikula berreskuratzeko aukera 16 urtetik gorakoentzat



Etorri eta galdetu!



Eibarko Udalak
eta HABEK

diruz
lagundutako
zentroa

Bista Eder 10 -PORTALEA-

euskaltegiaeibar@telefonica.net

Telefona: 943 70 09 12 Faxa: 943 82 00 89

**MATRIKULATZEKO EPEA:
Ekainaren 1etik 17ra**

- Euskalduntze eta Alfabetatzea
- 1., 2. eta 3. maila (EGA) prestatzeko ikastaroak
- Titulu Ofizialak
- Goizez, 4 orduko ikastaroak
- Ekainaren 27tik uztailaren 22ra
- Irailean jarraitzeko aukera (azterketa aurreko egunetan, egunero 2 ordu)



**EIBARKO
UDAL
EUSKALTEGIA**

TEORIKA ATERATZEKO IKASTARO TRINKOAK

Materia arriskutsuak / C.A.P.

Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko
nazioarteko agentzia **ziurtagiriak**
lortzeko ikastaroak



T. Etxebarria, 7

Tel. 943 70 23 84

Tel. 943 70 23 78



Irribarreak
gaztetu egiten gaitu

m **bista eder**
clínica dental - hartz klinika

Inplante eta
Hortz-Estetikan
adituak

Bista Eder Hartz Klinika
Bista Eder, 19 - behea -EIBAR-
943 70 00 82 / 943 20 84 75